



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

A K T A

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2002ko urriaren 29a

LEKUA: Kultur etxeko bilkura aretoa

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:15 **AMAIERA-ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Ramon Etxeberria Aldaz, Eneko Olariaga Arruti, Mari Jose Garate Etxeberria, Andoni Sarasua Oliden, Eneko Dorronsoro Portularrume, Itziar Olariaga Larrañaga, Daniel Barrenetxea Sarasua, Jose Miguel Leunda Zubizarreta eta Eugenio Cotado Iturain.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2002ko irailaren 27an egindako ohiko bilkurako akta.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Ordenantza Fiskalen eta beren eranskinen aldaketari. Aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.
- 3.- Orioko Bake Epaitegiko bake epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeko obren proiektu teknikoa.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeko obren kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboak. Kontratazioa lehiaketa bidez egingo da, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz.
- 6.- Alkate-presidenteari ahalmen zabala ematea, egoki bada, Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeen eraikuntza sustatzeko behar diren agiri publiko eta pribatu guztiak izenpetzeko.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko udal kiroldegiko garaje plazen erabileraren lagapenaren kontzesio administratiboa arautuko duten baldintza juridiko eta ekonomikoak.
- 8.- Onartzea, egoki bada, 'Euskal Herriko udalak emakumeen kontrako indarkeriaren aurka' izeneko aldarrikapena.
- 9.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2002KO IRAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

ONARTZEA Udalbatzarrak 2002ko irailaren 27an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETARI. ALDAKETAK 2003KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DU ERAGINA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak honako hau proposatu du, 2002ko urriaren 15eko bilkuran emandako diktamenaren bitartez: gaur egun indarrean dauden tarifak % 3,5 igotzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko urriaren 15ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU**



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen eta beren eranskinen aldaketari. Aldaketak 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina.

Hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendaurrean jarriko da, Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/89 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, iragarkiak argitaratuko dira, bai Gipuzkoako aldizkari ofizialean eta bai udaletxeko iragarki taulan, aipatutako artikulua 2. puntuak agintzen duen eran.

a) Espedientea izango den tokia: Udaletxe honetako idazkaritzan.

b) Aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, behin iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, bulego orduetan.

c) Erreklamatu dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/89 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazten direnak.

d) Aurkezteko tokia: Udaletxeko sarrera erregistro orokorrean. Aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubideari buruzko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan adierazten den tokietan.

e) Zein organoren aurrean errekurritu behar den: Orioko Udalbatzarra.

Behin 30 laneguneko epe hori pasatakoan, ez badago inolako erreklamazio edo oharrik, behin-betikotzat joko dira hartutako erabakiak, erabaki berririk hartu behar izan gabe.

3.- ORIOKO BAKE EPAITEGIKO BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko urriaren 15ean egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1.- Felipe Arostegi Iburguren **AUKERATU ETA PROPOSATZEA** Orioko Bake Epaitetikoko bake epaile titular gisa. Aukeratutako pertsona horrek propio onartu beharko du bake epaile izendapena eta, bestalde, zinpeko aitortpen bat aurkeztu



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

beharko du, adieraziz gai dela kargu judizialak betetzeko eta ez daukala horretarako bateraezintasun arazorik.

2.- Santiago Zaldúa Otegi **AUKERATU ETA PROPOSATZEA** Orioko Bake Epaitetikoko bake epaile ordezeko gisa. Aukeratutako pertsona horrek propio onartu beharko du bake epaile izendapena eta, bestalde, zinpeko aitortzen bat aurkeztu beharko du, adieraziz gai dela kargu judizialak betetzeko eta ez daukala horretarako bateraezintasun arazorik.

3.- **BIDALTZEA** erabaki honen ziurtagiria Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusira, goian aipatu diren agiriekin batera, dagozkion izendapenak bidera ditzan.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO GOIKO KALEAN LUR AZPIKO GARAJEAK ERAIKITZEKO OBREN PROIEKTU TEKNIKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

MAHAI GAINEAN UZTEA Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeke obren proiektu teknikoaren onarpena, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak dagozkion diktamena eman dezan arte.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO GOIKO KALEAN LUR AZPIKO GARAJEAK ERAIKITZEKO OBREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK. KONTRATAZIOA LEHIAKETA BIDEZ EGINGO DA, PROZEDURA IREKIZ ETA OHIKO TRAMITAZIOZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

MAHAI GAINEAN UZTEA Orioko Goiko Kanean lur azpiko garajeak eraikitzeke obren kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko-administratiboen onarpena, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak dagozkion diktamena eman dezan arte.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

6.- ALKATE-PRESIDENTEARI AHALMEN ZABALA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO GOIKO KALEAN LUR AZPIKO GARAJEEN ERAIKUNTZA SUSTATZEKO BEHAR DIREN AGIRI PUBLIKO ETA PRIVATU GUZTIAK IZENPETZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

MAHAI GAINEAN UZTEA alkate-presidenteari ahalmen zabala ematea, Orioko Goiko Kalean lur azpiko garajeen eraikuntza sustatzeko behar diren agiri publiko eta pribatu guztiak izenpetzeko, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak dagokion diktamena eman dezan arte.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KIROLDEGIKO GARAJE PLAZEN ERABILERAREN LAGAPENAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKOAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2002ko urriaren 28an egindako Hirigintzako batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

ONARTZEA Orioko udal kiroldegiko garaje plazen erabileraren lagapenaren kontzesio administratiboa arautuko duten baldintza juridiko eta ekonomikoak.

Aipatutako diktamenari aldaketa hauek egin dizkio Udalbatzarrak:

- 1.- Erabileraren lagapena 40 urterako izango da.
- 2.- Interesdunek 225 euro ordaindu beharko dituzte, aldez aurretik, izena ematerakoan.
- 3.- Izena emateko, hilabeteko epea izango dute interesdunek.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 'EUSKAL HERRIKO UDALAK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKA' IZENEKO ALDARRIKAPENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Aldarrikapenak, hitzez hitz, honela dio:



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

EUSKAL UDALERRIOK:

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Gure gizarteak gaur egun duen arazorik larrienetakoa emakumezkoek jasaten duten era guztietako biolentzia da. Etxeko tratu txarrak, sexu erasoak, sexu jazarpena, genitalen mutilazioa, emakume eta neskatilen trafikoa, sexu esplotazioa, eta abar, biolentzia horren adierazpen desberdinak dira. Denak dira emakumeen duintasunen aurkako eraso zuzena eta horren ondorioz, giza eskubideen bortxaketa larria eta onartezina dira.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Emakumezkoen aurkako indarkeria emakumezkoen desberdintasunean oinarritutako gizarte baten adierazpena da; desberdintasun horren arabera, rol desberdinak atxikitzen dira sexuen arabera eta emakumezkoak desbalorizatu eta menpean jartzen ditu gizonezkoen aurrean. Horregatik, arazoari konponbidea bilatu nahi badiogu, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna oztopatzen duten genero estereotipoak gainditzeko lan egin behar dugu.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Emakumezkoen aurkako biolentziak bizitza suntsitzeaz gain, emakumeei kolektibo gisa bizitzan publikoan parte hartzeko oztopoak jartzen dizkie eta herritartasun eskubideaz baliatzeko mugak jartzen dizkie. Ez dago herrialde edo gizarterik biolentzia mota horretatik libre geratzen denik; mundu osoan gertatzen den fenomeno da, edozein izanik ere herrialdea, gizarte maila, maila ekonomikoa, etnia, kultura eta adina. Beraz, denoi dagokigun lehen mailako gizarte arazo baten aurrean gaude; gainera, kalkulaezinak eta atzeraezinak diren kostu pertsonal, sozial eta ekonomikoak dakartza eta gure herri eta hirien garapena eta bilakaera ahultzen dute.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Azken urteotan aurrerapauso garrantzitsuak eman dira indarkeria mota honi buruzko kontzientziazioari eta gizarteak eman dion erantzunari dagokionez. Munduko nazio askotan eta nazioarteko eragile desberdinak hainbat alor ukitzen dituzten neurriak hartzen ari dira. Gure Erkidegoan aspalditik ari gara lanean esku-hartze arlo desberdinetan: ikerketa, sentsibilizazioa, prebentzioa, prestakuntza eta biktimei eskaintzen zaien laguntza eta babesa. Plan ugari garatu da Euskal Autonomia Erkidegoan: Emakumezkoentzako Ekintza Positiborako Plana, berdintasunari buruzko Foru eta Udal Planak eta iaz gai honetan inplikaturako Erakunde guztiek sinatu zuten etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktimei ematen zaien laguntza hobetzeko erakunde-arteko Hitzarmena. Alor honetan ekimen garrantzitsuak garatu dira, baina oraindik asko dago egiteko.

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Udala herritarrengandik hurbilen dagoen Administrazio publikoa denez, eginkizun garrantzitsua dauka emakumezkoen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta erradikazioan eta biktimei laguntza ematerakoan. Horregatik, gure ustez beharrezkoa da alor horretako udal politikak garatzea eta toki mailako foroak sortzea, ekimenak eta esperientziak elkartrukatzeko eta elkarrekin lanean aritzea errazago izan dadin.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

ZERA ADIERAZI NAHI DUGU: Jokabide horien biktima diren biktima zuzen eta zeharkakoei gure elkartasuna adierazi nahi diegu eta gure eskura ditugun baliabide guztiak eskaintzeko borondate osoa daukagu, laguntza azkarra, egokia eta eraginkorra emateko.

DEI EGITEN DIEGU herritar guztiei, batez ere gizonezkoei, biktimekiko elkartasuna adierazi dezaten eta laguntza eman diezaieten eta emakumezkoen aurkako biolentziaren aurrean jarrera aktiboa har dezaten: arbuiatuz, salatuz eta biolentziaren aurreko ezetza eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunarekiko errespetua eguneroko bizitzan sartuz eta etorriko diren belaunaldiei transmitituz. Eta emakumezkoen aurkako biolentziari aurre hartzeko eta aurre egiteko egingo diren ekitaldi publikoetan parte hartzera animatzen ditugu.

KONPROMISOA HARTZEN DUGU, guri dagokigun heinean, udal politika aktiboa aurrera eramateko, emakumezkoen aurkako biolentziari aurre hartu eta desagerrarazteko asmotan eta eraso horien biktimei eskaintzen zaien laguntza hobetze aldera; hori guztia, gure Erkidegoan indarrean dauden arau, plan eta erabakiek xedatutakoaren arabera, Era berean, etorkizunean toki mailan sor daitezkeen ekimen guztiekiko interesa erakutsi nahi dugu, udalek alor horretan egiten dituzten jarduketara guztiak hobetu ahal izateko, jarduketara eta esperientzia desberdinak denon artean elkartrukatzuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1.- ONARTZEA 'Euskal Herriko udalak emakumeen kontrako indarkeriaren aurka' izeneko aldarrikapena, goian jasota dagoen bezala.

2.- Onarpenaren ziurtagiria **BIDALTZEA** Emakunderi, jakin dezan eta horren ondorioz joka dezan.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Itziar Olariagak hartzen du hitza eta adierazten du aurreko astean Alvaro Amann Herri Lan eta Garraio sailburua etorri zela Oriora, arrantza portuko lanak ikustera, eta alkateak ez ziela abisatu udaleko beste alderdi politikoei, eta, beraz, ez zutela aukerarik izan harekin egoteko. Itziarrek eskatzen dio alkateari aurrerantzean beste talde politikoak abisatzeko Jaurlaritzako edo Diputazioko karguren bat Oriora etorri behar duenean.

Alkateak erantzuten dio ez zuela jokatu borondate txarrarekin; berari ere bezperan eman ziotela bisitaren berri eta ez zuela astirik izan udaleko talde politikoak abisatzeko.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,